



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUAREN EBAZPENA

LEA/AVC 454-ZEH-2020

Aurkibidea:

I. AURREKARIAK.....	1
II. GIZARTE- ETA HEZKUNTZA-ARLOAN ETA ARLO PSIKOSOZIALEAN ESKU HARTZEKO ZERBITZUAREN LIZITAZIOA, 2020.....	3
III. INPLIKATUTA DAUDEN ENPRESAK.....	4
IV. ZUZENBIDEKO OINARRIAK.....	5
1. Lehia egintza desleialen eta imitazio-egintza desleialen bidez faltsutzeko debekua Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 3. artikulua eta Lehia Desleialaren Legearen 11. artikulua).....	6
2. Salatutako jokabideak merkatuko lehia-baldintzetan duen eragina.....	8
3. Ebazpena emateko eskumena duen organoa.....	9
V. EBAZTEN DU.....	10

Bertaratuak:

Lehendakaria: Alba Urresola Clavero andrea

Bokala: Rafael Iturriaga Nieva jauna

Bokala: Enara Venturini Álvarez andrea

Idazkaria: Ainara Herce San Martín

Lehiaren Euskal Kontseiluak, 2021eko otsailaren 25eko bilkuran (adierazitakoek parte hartuta), ebazpen hau eman du Galdakao udalerriko gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuaren lizitazioaren 454-ZEH-2020 espedientean.

I. AURREKARIAK

1. 2020ko abuztuaren 4an, Galdakako Udalak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 132.3 artikuluan oinarrituta, idatzi hau bidali zion Lehiaren Euskal Kontseiluari (LEA/AVC): AGINTZARI S. KOOP. enpresak «Galdakako udalerriko gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku



hartzeko zerbitzuaren» lizitazio publikoaren Kontratazio Mahaiari aurkeztutako idatzia (espediente-zenbakia: 2343/2019). Idatzi horretan honako hau eskatu zen:

«(...) kontratazio-espediente honen barruan gorabehera espezifiko bat hastea, egiaztatzeko (...) Gizatzen SAK lehia-jokabide desleiala egin duen, lehiaketa horretan dakarren lehia askearen alterazio larriarekin, eta, hala egiaztatzen bada, hautagaia kanporatzeko eta horren berri emateko Lehiaren Euskal Agintaritzari, ondorio egokiak izan ditzan».

AGINTZARI S. KOOPen iritziz, GIZATZEN SAK lizitazio horretan aurkeztutako eskaintza teknikoaren zenbait puntu bat zetozen AGINTZARI S. KOOPek Galdakaoko Udalaren lizitazioaren helburu bereko beste lizitazio batzuetan prestatutako eskaintza teknikoekin, zeinetan AGINTZARIren beraren metodologia ez-publikoak jorratzen baitira.

AGINTZARI S. KOOPek esanetan, metodologia hori jabetza intelektualeko eskubide eskusiboek babestuta dago, eta halaxe dago islatuta lehiaketa publikoetara aurkeztutako proiektuetan, zeinak Bizkaiko jabetza intelektualeko erregistro nagusian baitaude inskribatuta.

2. AGINTZARI S. KOOPek aipatu dituen gertakariak aztertzeko, LEA/AVCKo Ikerketa Zuzendaritzak, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 49.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, informazio erreserbatua hasi zuen, GIZATZEN SAREN jokabideak lehia murrizten ote zuen ikusteko.

Informazio erreserbatu horretan, Ikerketa Zuzendaritzak lizitazio horren administrazio-espedientearen kopia bat eskatu zion Galdakaoko Udalari. Era berean, informazioa eta dokumentazioa eskatu zizkien AGINTZARI S. KOOPi eta GIZATZEN SARI.

3. 2021eko urtarrilaren 27an, LEAko Ikerketa Zuzendaritzak antzemandako jokabideak azaltzen zituen ohar laburra igorri zion Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalako (MLBN) Lehiaren Zuzendaritzari, otsailaren 21eko 1/2002 Legearen (Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzkoa) 2.1 artikuluan xedatuarekin bat etorritik, eta LEAko jokabideak aztertzeko eskumena zuela adierazi zuen ohar hartan.
4. 2021eko otsailaren 5ean, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak, jasotako proposamenari jarraikiz, gertaera jakin horiek aztertu eta ebazteko eskumena LEARI zegokiola iritzi izan zion, eta espedientearen instrukzioa esleitu zion.



5. 2021eko otsailaren 12an, Ikerketa Zuzendaritzak, Lehiaren Defentsarako Erregelamenduaren 27. artikuluekin bat etorriz, Lehiaren Euskal Kontseiluari espedientea ez hasteko eta jarduketak artxibatzeke ebazpen-proposamena egin zion; izan ere, ez da egiaztatu Lehiaren Defentsari buruzko Legea (uztailaren 3ko 15/2007 Legea) eta, zehazki, Legearen 3. artikulua urratu izanaren zantzurik.

II. GIZARTE- ETA HEZKUNTZA-ARLOAN ETA ARLO PSIKOSOSIALEAN ESKU HARTZEKO ZERBITZUAREN LIZITAZIOA, 2020

6. 2020ko otsailean, Galdakaoko Udalak, prozedura irekiaren eta tramitazio arruntaren bidez, «*Galdakao udalerriko gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua*» lizitazioaren deialdia egin zuen (espediente-zenbakia: 2343/2019).¹

7. Lizitazio horretan 3 enpresa lehiatu ziren:

- AGINTZARI S. KOOP. (IFK:F48481923), 1996. urtetik eman du zerbitzu hori
- GIZATZEN SA (IFK:A95889523), OHL taldekoa
- ABEErako konpromisoa: FUNDACIÓN INTEGRANDO eta ACAYA, NATURALEZA Y VIDA SL (EISE GALDAKAO).

8. 2020ko uztailaren 1ean, Kontratazio Mahaiak erabaki zuen kontratua GIZATZEN SA enpresari esleitzeko proposatzea Kontratazio Organoari, esleipen-irizpideen aplikazioan puntuazio onena lortu zuen lizitatzailerak izan zelako.

9. 2020ko uztailaren 21ean AGINTZARI S. KOOPek Kontratazio Mahaian lehiaren araudia urratzeagatik intzidentzia hasteko eskabidea aurkeztu zuen. Eskabide horretan, honako hau eskatu zuen:

«(...) kontratazio-espediente honen barruan gorabehera espezifikoko bat hastea, egiaztatzeko (...) Gizatzen SAK lehia-jokabide desleiala egin duen, lehiaketa horretan dakarren lehia askearen alterazio larriarekin, eta, hala egiaztatzen bada, hautagaia kanporatzeko eta horren berri emateko Lehiaren Euskal Agintaritzari, ondorio egokiak izan ditzan».

10. 2020ko irailaren 23an, Kontratazio Mahaiak erabaki zuen GIZATZEN SA kanpoan uztea, ulertu zuelako enpresak ez zuela egiaztatu honako baldintza hau: kontratuaren xede diren lanen parekorik edo antzekorik gauzatu izana, eta horien urteko zenbateko metatua azken hiru urteetako exekuzio handieneko urtean kontratuaren batez besteko

¹ 6. 1996. urtetik zerbitzu hori AGINTZARI S. KOOPek eman du.



urteroko kuotaren % 70 edo gehiagokoa izatea (156.545,45 euro, BEZa aparte). Hala exijitzen da baldintza-agirietan.

11. 2020ko urriaren 20an, GIZATZEN SAK kontratazioko errekurtsio berezia jarri zuen Kontratazio Mahaiak lizitazio horretatik kanpo uzteko erabakiaren aurka.
12. 2020ko abenduaren 30ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsioen Administrazio Organoko titularrak 184/2020 Ebazpena eman zuen, eta GIZATZEN SAK lizitazio horretatik kanpo uzteko erabakiaren aurka jarritako kontratazioko errekurtsio berezia ezestea ebatzi zuen.

Ebazpen horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsioen Administrazio Organoak honako hau adierazi zuen:

«Errekurtsio-egileak alegatutako zerbitzuak mendeko pertsoneri zuzentzen zaizkie, eta gizarte-zerbitzu horien esparruan egiten diren jarduketak zaintza eta asistentzia pertsonalarekin daude lotuta, besteak beste: higiene pertsonalerako lanak, janzteko laguntza, pertsonaren inguruaren mantentze-lanak edo mobilizazioak, bai etxean bertan bai egoitza-zentroan. Kontratuan eskatzen diren jarduketak, berriz, adingabe eta familiei zuzentzen zaizkie, baina helburu nagusia da adingabearen eskubideak babestea (hala ere, kontratuaren zerbitzua 21 urtera arte luzatzen da), eskubide horiek kaltetzeko arriskua detektatzea, eta arrisku hori nahiz zailtasunak garaiz murriztea, adingabearen garapen pertsonala, familiarra, soziala, hezkuntzako edo ongizatekoa oztopatzen duten aldetik, horretarako norberaren zaintzara eta osasun-zaintzara bideratuz bestelako askotariko esku-hartzeak eginez. Ondorioz, bere garaian Kontratazio Mahaiak egoki ondorioztatu zuenez, ez da analogiarik ikusten alegatutako zerbitzuen eta kontratuan eskatutakoaren helburu, xede eta jarduketan artean».

13. 2021eko urtarrilaren 27an, Kontratazio Organoak ebazpena eman zuen, eta lizitaziotik kanpo utzi zituen GIZATZEN eta ABEErako konpromisoa (FUNDACIÓN INTEGRANDO eta ACAYA, NATURALEZA y VIDA SL). Era berean, AGINTZARI S. KOOPi zerbitzu horren kontratua esleitzea erabaki zuen.

III. INPLIKATUTA DAUDEN ENPRESAK

14. AGINTZARI S. KOOP., GIZARTE-EKIMENEKOA: F48481923 IFZ du, eta helbidea, Bilboko Madariaga etorbidea 1. 4. solairua. (PK: 48014) AGINTZARI S. KOOPek, bere lan elkartuaren bidez, zailtasun-egoeran dauden herritarren sustapena eta erabateko integrazioa lortzeko komunitate-interes orokorra du. Horretarako, honako jarduerak hauek garatzen ditu, besteak beste:

«a) Aholkulari, zerbitzu-emaile eta honako arlo hauetako edukiekin zerikusia duten mota guztietako programa eta ekimenen kudeatzaile-lanetan jardutea: gizartea, kultura, hezkuntza, aisia, turismoa, jaietako kontsumoa, astialdia, osasuna, artea, ingurumena, esku-hartze eta



garapen komunitarioak, garapenerako lurralde arteko eta nazioarteko lankidetzak, laneratzea, enplegurako prestakuntza, sustapena, haur, gazte, emakume eta hirugarren adinekoei aholkularitza, informazioa eta arreta ematea, droga-mendekotasunen arreta, tratamendua, gizarteratzea eta prebentzioa, gizarte-garapena eta plangintza demografikoa eta hirikoa eta, oro har, giza zientziekin lotura izanik, komunitateko gizabanakoen gizarte- eta kulturadimentsioa aberasten laguntzen duten arlo guztiak. b) Aurreko puntuan aipatu den edozein arloren inguruko ikerketa, analisi prospektiboa, landa-lanak, estatistika-lanak eta aholkularitzako, zabalkundeko eta komunikazioko estrategiak eta planak egitea».

15. GIZATZEN SA: A95889523 IFZ du, eta helbidea Bilboko On Diego Lopez Haroko Kale Nagusia 33, 5. solairua (PK: 48009). Zerbitzu anitzeko enpresa da, eta haren helburu sozialak, besteak beste, hauek dira:

«Higiezinetan, publikoak zein pribatuak izan, mota guztietako zerbitzuak ematea aztertu, eman eta ustiatzea, mugarik gabe; kontratatzeko lehiaketa, enkante eta hala ezartzen diren legezko prozeduretara jo dezakegu, hor ere mugarik gabe. Horretarako, mota guztietako eskaintzak egiten ditugu, eta beharrezkoak diren izapide guztiak egiten ditugu, salbuespenik gabe, harik eta zerbitzu publiko edo pribatuaren esleipena lortu arte.(...)»

Asistentzia sanitarioko, soziosanitariorako edo gizarte-zerbitzuetarako eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak artatzeko zerbitzu integralak ematea, honako kolektibo hauei zuzenduta: adingabeak, nagusiak, ezinduak, familiak, haurrak, emakume gurasobakarrak, partekatu gabeko familia-kargadunak, desgaitu fisikoak eta psikikoak eta beharizan-egoeran dauden pertsonak edo taldeak (...)».

IV. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

16. AGINTZARI S. KOOPek salatu du GIZATZEN SAK lehia-egintza desleialen bidez faltsutze-jokabidea izan zuela. Jokabide hori debekatu egiten du Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 3. artikulua. Zehazki, adierazten du AGINTZARI S. KOOPek aurreko lizitazio publiko batzuetan aurkeztutako eskaintzak imitatzekeo egintzak egin dituela GIZATZEN SAK honako lizitazio honetako eskaintza teknikoan, honako atal hauetan:

- GIZATZENen «Eginkizunak, koordinazioa eta lan-antolamendua» garatzeko 2.2 puntuko, «Esku hartzeko faseak», egituraren eta edukietan.
- «Koordinazio-mailak» atalaren edukia eta idazketa berdina dira.
- «Zerbitzuaren ebaluazioa» atalaren egituraren.

Era berean, ustez Lehiaren Defentsari buruzko Legearen aurkako jokabideak interes publikoa kaltetzeari dagokionez, AGINTZARI S. KOOPek baieztatu du jokabide horrek interes publikoan izango lukeela eragina; izan ere, hura gauzatzeak eragin zuzena izango luke bazterketa- eta kalteberatasun-arrisku larrian dauden adingabe eta nerabeentzako lehen mailako arretarako udal-mailako gizarte-zerbitzuaren prestazioan.



1. Lehia egintza desleialen eta imitazio-egintza desleialen bidez faltsutzeko debekua Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 3. artikulua eta Lehia Desleialaren Legearen 11. artikulua)

17. LDLren 3. artikulua lehia askea interes publikoari eragiten dioten egintza desleialen bidez faltsutzea debekatzen du. Egintza horiek Lehia Desleialari buruzko urtarrilaren 10eko 3/1991 Legearen (LDL) arabera definitzen dira, arau horretan tipifikatzen baitira jokabide desleial horiek.

Merkatuan eta lehiatzeko xedez egin beharko dira aipatutako egintzak (LDL 2. art.). Orobat, kalte bereziki larria egin beharko diote interes publikoari, jokabide desleialaren benetako eraginak direla eta, batez ere.

Zentzu horretan, Auzitegi Gorenaren 1436/2018 ECLI: ES:TS:2018:3334 epaiak zuzenbideko oinarrietako hirugarrenean honako hau ezartzen du:

«(...) Sala honen jurisprudentziari jarraikiz, lehia desleialaren adierazpen orok ez du Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak zeha dezakeen arau-haustea eragingo; izan ere, horretarako, 15/2007 Legearen 3. artikulua zehazten duenez, “lehia askea faltsutzeagatik interes publikoari kalte egiten dioten” lehia desleialeko egintzak izan beharko dute. Eta hori gertatuko da jokabidearen garrantziak edo hura gauzatzean gertatutako inguruabarrek –hartu adibidetzat hura gauzatzen duen enpresaren nagusitasun-posizioa edo garrantzi erlatiboa, merkatuaren egoera gertakarien unean, lehiakideak merkatuan sartu edo iraun dezaten oztopatzeko auzipetutako jokabidearen birtualtasuna edo antzeko beste gertakari edo eragile batzuk– aukera ematen dutenean egiaztatzeko interes publikoari kalte egiten dion lehiaren faltsutzea izan dela.(...)».

18. Lehia Desleialaren Legeak debekatzen dituen lehia desleialeko egintzen artean, imitazio-egintzak daude. Lehia Desleialaren Legearen 11.1 artikulua ezartzen du ezen besteren enpresa edo lanbide- arloko prestazio eta ekimenen imitazioa librea dela, salbu eta prestazio eta ekimen horiek legeak aitortutako eskusiba-eskubide batek babestuta badaude. Hala ere, agindu horren bigarren paragrafoak zehazten du ezen hirugarren baten prestazioak imitatzea desleialtzat hartuko dela baldin eta imitazio horren ondorioz kontsumitzaileek prestazioaren gaineko lotura eratu badezakete edo imitazioak besteren ospeaz edo ahaleginaz bidegabeki aprobetxatzea badakar.

Horren harira, Auzitegi Gorenak 306/2017 (ECLI:ES:TS:2017:1910) epaiaren zuzenbide oinarrietako hamaseigarrenean honako hau zehaztu du:

«Gogoratu behar da, auzitegi honek zenbaitetan adierazi duenez, enpresako ekimenen eta prestazioen imitazioaren arauketa —Lehia Desleialaren Legearen 11. artikuluan jaso— honako honetan oinarritzen dela: besteren enpresako ekimenen eta prestazioen imitazioa librea da, baldin eta ez badago haiek babesten dituen eskusibotasun-eskubiderik. Hala ondorioztatzen da Lehia Desleialaren Legearen zioen azalpenean bertan, eta hala adierazten da Lehia Desleialaren Legearen 11. artikuluko lehen atalean.



Desleialtasunaren oinarrian ez dago lehiakide baten sorkuntza-materialak imitatu izana, baizik eta zer inguruabarretan egin zen imitazioa.

(...)

Desleiala izateko, imitazioak ahalegina aprobetxatzea ekarri behar du, eta aprobetxamendu horrek bidegabea izan behar du. «Besterena aprobetxatzea» ohar generikoak aditzera ematen du ezen bai doktrinan bai praktikan azpimarratu beharrekoa dela hirugarren baten ahalegin materiala eta ekonomikoa parasitatzen duen jokabidea zehatzen duela lege-tipoak.

Imitazioaren desleialtasuna ez da hirugarren baten ahaleginaren aprobetxamendu hutsean oinarritzen; izan ere, bestela, ordenamendu juridikoak aurreikusten ez duen eskusibotasun-eskubidea aitortzen egongo ginateke. Imitazio orok dakar besteren ahaleginaren aprobetxamendua, eta imitagarritasun librearen printzipioak baztertu egiten du besteren sormen materialaren imitazioa berez desleiala denik. Imitazioaren helburu den besteren prestazio hori aprobetxatzeko moduak eta erak justifikatzen dute desleialtasuna.

5.- Abenduaren 3ko 675/2014 ebazpenean adierazten genuenez, imitazio orok imitatuaren ahaleginaz baliatzea dakar, eta, ondorioz, Lehia Desleialaren Legearen 11.2 artikuluko arauaren interpretazio zehatz bat ezarri da, ez dezan eduki eraginkor gabe utzi Lehia Desleialaren Legearen 11.1 artikuluan jasotako eskusibotasun-eskubidearen babesean ez dauden besteren prestazioen imitazio librerako araua, eta, gainera, berariaz babestu dezan Lehia Desleialaren Legeak merkatua eta bertan lehiatzen direnak babesteko tresnatzat duen eginkizuna.

Jokabide desleialaren kasu honetan, lehiaren printzipioari ñabardura bat egiten zaio, lehia desleialaren araudiak iradokitzen dituen merezimendu eta prestazioengatik. Printzipio hori Lehia Desleialaren Legearen 11.1 artikuluko imitaziorako askatasun-printzipioarekin bateragarri egin behar da.

Ebazpen horretan egiaztatzen dugunez, kontuan hartuta Lehia Desleialaren Legearen 11.2 artikuluko desleialtat jotzen duela besteren ahalegina aprobetxatuta egiten den prestazioen imitazioa, helburua da zeharkako babesa ematea bere ahaleginarekin merkatuan finkatu den edo finkatu nahi duen lehiakideari. Sorkuntza materialean edo intelektualean denbora eta dirua inbertitu duena babesten da, kosturik gabe eta aitzindaria merkatuan finkatzea oztopatuz haren esentziaz jabetzen denaren aurrean.

6.- Sala honen jurisprudentziak (abenduaren 30eko 888/2010 epaia, azaroaren 16ko 792/2011 epaia eta abenduaren 3ko 675/2014 epaia) exijitu duenez, prestazioak imitatzegatik besteren ahaleginaren aprobetxamendu desegokia egoteko, ekoizpen- edo merkaturatze-kostuetan aurrezpen edo murrizketa esanguratsua egon behar da, merkatuak egoki funtzionatzeko onargarritzat jotzen denaz harago, eta aurrezpen edo murrizketa hori ez da justifikatuta egongo. Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinak egintza desleialengatiko lehia askearen faltsutzearen inguruan adierazten du lehia desleialeko egintzak debekatutako jokabide gisa zehatu ahal izateko, egintzek *“larriki desitxuratu behar dituztela lehia-baldintzak merkatuan”* eta *“desitxuratze larri horrek interes publikoan izan behar duela eragina”*. (Zuzenbideko 10. oinarria, Auzitegi Gorenaren 3887/2006 epaiarena. ECLI:ES:2006:3887)».

Lehia askeari eusteaz arduratzen diren administrazio-erakundeek (LEAk, besteak beste) kasu honetan baino ez dute jardungo: enpresarien jokabide desleialek lehia faltsutzen badute, hots, modu larrian eta interes publikoaren kalterako desitxuratzen badituzte lehiarako baldintzak merkatuan. Edonolako operadore ekonomikoei dagokie aurreikuspen hori.



- 19.** Lehia-organoen jarduketa –LEA/AVC honen kasua– interes publikoaren kaltetan merkatuko lehia-baldintzak modu larrian desitxuratzen dituzten egintza desleialetara mugatu behar da; auzitegi arruntei dagokie bestelako jokabide desleialez arduratzea. Hori dela eta, lehendabizi, salatutako jokabideak merkatuan zer-nolako eragina duen aztertu behar da, eta, kaltea larria bada, salatutako gertakarietan Lehia Desleialaren Legeak debekatzen duen imitazio-egintzarik ote dagoen aztertu.

2. Salatutako jokabideak merkatuko lehia-baldintzetan duen eragina

- 20.** Litzitazio publikoa eraginpeko eremua da funtsezko merkatua zehazteko; eremu horretan enpresek lehia dihardute, litzitazioaren xedeko merkatuagatik, eta itxita geratzen da indarraldi osorako, esleipena egiten denetik hasita. Hala, ustez lehiaren araudiaren aurkako jokabidea litzitazio publikoaren eremuan gertatuko litzateke.
- 21.** Kasu honetan, salaketaren helburu den jokabidea Galdakao udalerriko (Bizkaia) gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuaren litzitazio publikoan gertatu da.
- 22.** Espedientean jasotzen den informaziotik eta/edo dokumentaziotik egiaztatzen da GIZATZEN SA litzitazio horretatik kanpo geratu dela. Erabaki hori Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak berretsi du, oraintsu eman duen 184/2020 ebazpenaren bidez. Hala, Kontratazio Mahaiak 2020ko irailaren 23an erabaki zuen GIZATZEN SA baztertzea; izan ere, Mahaiak, baldintza-agirietan eskatutakoaren arabera, ulertu zuen ezen enpresak ez zuela egiaztatu kontratuaren xedeko lanen izaera bereko edo antzeko lanik gauzatu izana.
- 23.** Hori dela eta, nahiz eta GIZATZENek AGINTZARI S. KOOPek helburu bera zuten aurreko litzitazio publikoetan aurkeztutako proiektuak zati batean imitatzeagatik lehia desleialeko egintza egin, litzitazio-prozesutik kanporatu izanak ezabatu egiten du interes publikoari kalte larrikeria eragiteko ahalmena, eta hori Lehiaren Defentsarako Legearen 3. artikuluko tiporako eskakizuna da.
- 24.** Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak, lehia asaldatzeak interes publikoan izandako eragina dela eta, 2019ko urriaren 24ko ebazpenean honako hau zehaztu du (Espedientea: S/0651/18, ESKUKO EKIPAJEA):

«Egintza desleial batek interes publikoan eragina izateko, merkatuaren funtzionamendua arautzen duten mekanismoen nahasmendu larria eragiteko bezain garrantzitsua izan behar du (...).»



Ildo beretik jo du Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak, besteak beste, 2019ko ekainaren 20ko ebazpenean (S/DC/0552/15 AGIC espedientea) eta 2015eko uztailaren 30eko ebazpenean (S/DC/0524/14, LIDL espedientea).

Ildo horretan, LEA/AVC-k, besteak beste, honako ebazpen hauek eman ditu: LEA/AVC 413-ZEH-2020 espedientea, BILBO-GASTEIZ BIDAIARIEN GARRAIOA, eta LEA/AVC 296-ZEH-2018 espedientea, NATUR KALITATEA.

- 25.** GIZATZEN SAREN jokabideak merkatu-lizitazioaren lehia-baldintzak kaltetu ezin izan dituzenez eta Lehia Desleialaren Legearen 11.1 artikulua arau-hausterik ote dagoen aztertu gabe –eskumen hori merkataritza-arloko epaitegiei dagokie–, ez da ondorioztatzen Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 3. artikulua urratzearen zantzurik. Beraz, salaketa eta salaketa horren esparruan izan diren eta bideratu diren jarduketak artxibatuko dira.

3. Ebazpena emateko eskumena duen organoa

- 26.** Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko 2012ko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen 10 e) artikulua ezartzen duenez, honako hauek dira Lehiaren Euskal Kontseiluaren eginkizunak: «e) *Administrazioak bere kabuz hasitako jarduerak edo salaketak artxibatzea ebaztea, hala egin behar denean, zehapen-espediente bihurtu baino lehen*».
- 27.** Bestalde, honako hau dio Lehiaren Defentsarako Legearen 49.3. artikulua: «3. Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, Ikerketa Zuzendaritzak proposatuta, ustez lege honen 1., 2., eta 3. artikuluetan debekatutako jokaerak izateagatik hasi beharreko prozedurak ez hastea erabaki eta ordura arteko jarduerak artxibatu ahal izango ditu, Legea urratu izanaren zantzurik ez dagoela irizten baldin badio».
- 28.** Otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuak onetsi zuen Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamenduaren 25.5 artikulua honakoa dio: «5. *Salaketa moduko formulazioak ez du Ikerketa Zuzendaritza zehapen-prozedura hastera lotesten. Lehiaren Batzorde Nazionaleko Kontseiluaren prozedura ez hasteko erabakia, Ikerketa Zuzendaritzak proposatutakoa, salatzaileari jakinarazi beharko zaio, uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera prozedura ez hasteko arrazoiak adieraziz*».



V. EBAZTEN DU

BAKARRA.- Zehapen-prozedurarik ez hastea eta erreferentziako salaketaren harira egin eta izapidetu diren jarduketak artxibatzea, ez delako egiaztatu zantzurik dagoenik Lehiaren Defentsarako uztailaren 3ko 15/2007 Legea urratu dela ezartzeko.